

# Urtsu Handi (Urtsuandi)



## ETXABE NAZABAL familia

**U**RTSUANDI Urtsu-Erreka auzoan dago. Inguruko paraje izenen artean ditugu *Illorrane, Isasti, Goiko itturri*.

Auzoko bidea 1939an egin zuten eta etxerainokoa ere bai. Aita Joxe Antoniok eta alkate Joan Mendizabal *Muertzakoak* hitz-aspertu ugari egiten omen zuten gaiari buruz. Eta inguruko baserritarrek esaten omen zuten ez zutela burutuko han izango zen kotxe-hotsarekin.

Joxe Antonio Etxabe *Goskindi* baserritik etorri zen *Urtsuandira*, eta bertako alaba Nikolaxa Iztuetarekin ezkondu zen 1923an. Bi anaia eta bi ahizpa ezkondu ziren. Etxean gurasoak bizi ziren artean eta baita bi osaba-izebak ere.

Joxe Antoniok Fabrika Handian egiten zuen lana. Horretarako, oinez jaisten zen herriraino eta handik bizikletan Beasaina. Edadean aurrera zihoala motoa ere erosi omen zioten, baina bi edo hiru aldiz erori egin omen zen mototik. Baserrian bazituzten behiak eta txerriak, zortzi buru. Ordiziako ferian saltzen zituzten arrautzak, barazkiak, oilaskoak eta oiloak. Soroan garia eta artoa ereiten omen zuten.

Maizter bizi izan ziren eta 1958an erosi zioten etxea markesari. Errenta ordaintzera Donostiara joaten omen ziren bi hilabete behin.

Eskolara oinez joaten ziren ordu erdiko bidea eginez.

Bost seme-alaba izan zituzten: Roxita, Benita, Maritxu, Nati eta Inaxio.

Inaxio geratu zen etxerako eta 1967an Maria Jexux Nazabalekin ezkondu zen. *Agarre Urreta* baserrikoa zen Maria Jexux eta *Urtsuandin* jarri ziren bizi izaten.

Loiolan ezkondu eta Azpeitiko Kiruri jatetxean egin omen zuten otordua.

Lau seme-alaba izan zituzten: Amaia, Maixabel, Joxean eta Oroitz.

Inaxiok Fabrika Handian egiten zuen lan, Beasainen, gaztetatik, eta kotxez joaten zen lanera. Kotxea bete jende joaten omen ziren.

Etxekonean eta inguruko baserrietan, Urtsu Txikin, Urtsuko Errotan, ez omen zuten urik. Errekatik hartzen omen zuten eta Joxe Antonio aitonak eman omen zien. Gaur egun ere halaxe jarraitzen omen dute.

## Baserriaren arrastoa idatzietan

Urtsugoena agertzen da 1783-12-17an, Francisco Antonio de Echaveren aurrean, Enerio eta Aralarko sailen erabileraz bitartekari bati emandako botere-emaielen artean. Auzo horretakoen artean agertzen dira Urtsu-Handia, Urtsukoerrota, Urtsuegi eta Urtsu Goena ere. Bilera hartara Urtsugoenako lau ordezkari joan ziren, bertan lau familia edo biziko ziren orduan.

# Pasadizoak

## Etxe beharrean

Gerra garaian Ordiziako familia bat etorri omen zitzairen aitona Joxe Antoniori eta amona Nikolaxari hartuko al zituzten galdezka, eta hantxe egon omen ziren hilabete pare batean.



Joxe Antonio Etxabe (aitona).



Nikolaxa Iztueta (amona).



Maria Jexux Nazabal eta Inaxio Etxabe (gurasoak).



Benita Etxabe, Martin Irastortza, Maritxu Etxabe, Nati Etxabe, Inaxio Etxabe/Roxita Etxabe, Joxe Antonio (aita), Nikolaxa (ama) eta Joxe Mari Erauskin, (Roxitaren senarra).



Gurasoak seme-alabekin. Inaxio Etxabe (aita), Amaia, Joxean, Maixabel, Maria Jexux (ama) eta Oroitz.